

Kosmodisea 2008-2009 | Fono Planeta | Lehen Hezkuntza (Fisio Sistema)



Mari Kruz Intxausti (Elgoibar Ikastola)

Elgoibar Ikastolako talde batek eginiko proposamena izan da Lehen Hezkuntzako Fisio Sisteman lehen postua lortu duena. Mari Kruz Intxausti arduradun duen ikasle-taldeak eginiko proposamena da. Ikasleek Kosmodisean parte hartzen dutenean erakusten duten ilusioa azpimarratu du irakasleak.

Mari Kruz Intxaustik ikasleek entrenamendu-fasean egin behar izan zuten esfortzua ere aipatu du. *“Zehazki zer zen egin behar zutena ulertzea, izan da beraiantzat zailena.”* Irakasleak adierazi duenez, adin horietako ikasleei *“asko gidatu behar zaie, nahiz eta bilaketa-lanaren ostean, gidoia eta planifikazioa oso ondo egin.”* Intxaustik dio proiektua grabatzen ari zirela, bere taldeko neska-mutilek gustura lan egin zutela, *“Audacity programa ezagutzen baitzuten eta jada erabiltzeko ohitura baitzuten.”*

Mari Kruz Intxaustiren iritziz, *“Internetek eskaintzen dituen aukera zabalak harritu ditu ikasleak, oso interesgarriak iruditu zaizkie eta trebetasun asko jorratu dituzte. Oso polita iruditu zaie beren lana eta gainerakoena blogean entzutea.”* Irakasleak dioenez, jorratu behar izan duten gaia bera ere asko gustatu zaie ikasleei. *“Animalien sufrimenduak kezka sakona sorrarazi die.”*

- Zer izan da zailena?

- *Lehen esan bezala, zer egin behar zen eta nola egin behar zen ulertzea izan da zailena ikasleentzat. Lan-banaketan ere arazoren bat izan dugu, guztiek parte hartu nahi baitzuten grabazioan. Hala ere, egin dugun lana eta ikasleek hartu behar izan dituzten erabakiak kontuan hartuz, fase hau oso positiboki baloratzen dugu.*